



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Laburpena, Alkatezaren 2026ko otsailaren 25eko 822/2026 Dekretuarena, 2026ko Kultura Politika eta Euskara Arloko udal dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena. BDNS (Identif.): 890650.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/890650>).

Lehenengoa. — Deialdi honen xede diren dirulaguntzen onuradunak

Kultura

Basauriko udalerrian oro har kultur jarduerak (antzerkia, lehiaketak, kultur jarduerak) egiten dituzten talde edo elkarteek eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

Kanpoan geratzen dira:

- Guraso-talde edo -elkarteak, ikastetxeak, ikasle-elkarteak eta kultura-arlokoak ez diren jarduerak egiten dituzten beste edozein.

Kirola

1. Jarduera egonkorak eta/edo lehiaketetan egitea:

Basauriko Udalaren Elkarten Udal Erregistroan inskribatutako elkarteak, kirol-klubak edo erakundeak

Kanpoan geratzen dira:

- Ikastetxeak
- Kirol-arloan jarduten ez duten elkarteak eta bestelako erakundeak.

2. Kirol-ekitaldi zehatzak egitea:

Basauriko Udalaren Elkarten Udal Erregistroan inskribatutako elkarteak, kirol-klubak edo erakundeak, edo bertan bizi diren pertsonak hartzaile gisa dituzten jarduerak/programak garatzen dituztenak.

Hezkuntza:

- Udalerriko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoak eta prestakuntza-zikloak.
- Udalerriko kooperatibak edo itunpeko ikastetxeak
- Gurasoen elkarteak (IGEak).

Gazteria

- Basauriko Udaleko Elkarten Udal Erregistroan inskribatutako astialdiko taldeak eta/edo elkarteak, edo erregistro horretan bizi diren pertsonak hartzaile gisa dituzten jarduerak/programak garatzen dituztenak.

Kanpoan geratzen dira:

- Ikastetxeak, guraso-elkarteak (IGE), ikasle-elkarteak eta eskolako eta/edo eremu akademikoko beste edozein jarduera.



Euskara

Aisialdiko begirale edo zuzendariaren titulu ofizialak

- Udalerrian erroldatutako gazteak, aisialdiari buruzko prestakuntza ofiziala euskaraz egin nahi dutenak.

Gidabaimena euskaraz

- Basaurin erroldatutako 17 eta 23 urte bitarteko gazteak, gidabaimena euskaraz lortzeko azterketa egin dutenak

Euskara ikastaroak egitea

- Udalerrian erroldatutako pertsonak, 16 urtetik gorakoak.

Euskararen erabilera sustatzea elkarteetan, enpresetan eta merkataritzan

- Udalerrian kokatutako merkataritza eta ostalaritza establezimendu iraunkorrak, jarduera Basaurin egiten dutenak eta egoitza soziala Basaurin dutenak. Eta, salbuespen gisa, egoitza soziala beste udalerrri batzuetan duten establezimenduak ere bai, baldin eta enpresa garatzeko proiektuak Basauriko udalerrian kokatzea badakar.
- Merkataritza-sozietateak eta kooperatibak, helbide soziala eta/edo fiskala Basauriko udalerrian dutenak. Eta, salbuespen gisa, baita egoitza soziala beste udalerrri batzuetan izanik, enpresa garatzeko proiektuak Basauriko udalerrian kokatzea darrarenean ere.
- Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutako Basauriko irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta taldeak.

Kanpoan geratzen dira:

- Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzen onuradun izan daitezkeen erakundeei zerbitzuak ematen dizkieten merkataritza-sozietateak eta kooperatiba-sozietateak.
- Kanpoan geratuko dira, halaber, administrazio publikoen partaidetza duten merkataritza-erakundeak.

Euskararen nazioarteko eguna ospatzeko ikastetxeetan egindako jarduerak

- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeak eta udalerriko heziketa-zikloak, edo Basauriko ikastetxeetako eta irakaskuntza-kooperatibetako guraso-elkarteek (IGE) aurkez ditzakete.

Ikastetxe berean Lehen eta Bigarren Hezkuntza ematen bada, bi eskaera independente aurkeztu ahal izango dira, ikastetxe horiek ez diskriminatzeko. Egin beharreko jarduerak desberdinak izango direla justifikatu beharko da, zein ikaslerentzat diren kontuan hartuta.

Bigarrena. – Dirulaguntzaren xedea

Kultura

- Mota guztietako jarduera kulturekin lotutako asoziazionismoa sustatzea.

Kirola

- Kirol-erakundeen urteko kirol-jarduera egonkorak eta/edo lehiaketak erraztea. Unean uneko kirol-ekitaldiak antolatzea eta egitea, garapen nagusia Basauriko udalerrian denean soilik.

Hezkuntza

- Ikasleen gurasoek hezkuntza-proiektuaren kalitatea hobetzeko hezkuntza-ekimenean parte har dezaten sustatzea.

**Gazteria**

- Aisialdiko eta aisialdi hezitzaileko elkarteei gazteentzako programen eskaintza egin ahal izatea erraztea.

Euskara

- Aisialdiko begirale, zuzendari titulu ofiziala lortzeko eta dinamizatzailer soziokulturalaren titulu ofiziala lortzeko euskarazko prestakuntza sustatzea.- Basauriko herriarren euskalduntzea eta alfabetatzea sustatzea.
- Udalerriko merkataritza-eremuan euskararen erabilera sustatzea, zabaltzea edo normalizatzea, eta udalerriko gazteek gidabaimena lortzeko prestakuntza euskaraz egin dezaten bultzatzea.
- Udalerriko merkataritza-eremuan euskararen erabilera sustatzea, zabaltzea edo normalizatzea, eta Basauriko elkarteen irudi publikoan euskararen erabilera sustatzea eta indartzea.
- Udalerriko ikastetxeetan Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta jarduerak egin daitezen sustatzea.

Hirugarrena. – Oinarri arautzaileak

Oinarriak Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean jasota daude, eta 2024ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (150 zk.).

Laugarrena. – Dirulaguntzaren zenbatekoa

Eremua	Kontzeptua	Euroak
KULTURA	KULTUR JARDUERAK	18.500,00
KIROLA	IZAERA EGONKORRA	300.000,00
	UNEAN UNEKO KIROL EKITALDIAK	110.000,00
HEZKUNTZA		41.404,77
GAZTERIA	AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO ELKARTEAK	5.323,55
EUSKARA	BEGIRALE IKASTAROKAK	2.000,00
	EUSKARA IKASTAROKAK	35.000,00
	GIDABAIMENA EUSKARAZ	3.500,00
	EUSKARAREN GIZARTE-SUSTAPENA – ENPRESAK, MERKATARITZA	9.800,00
	EUSKARAREN GIZARTE-SUSTAPENA – ELKARTEAK	1.000,00
	EUSKARAREN GIZARTE-SUSTAPENA – IKASTETXEAK	4.500,00

Bosgarrena. – Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, deialdian beste eperik adierazi ezean.

Seigarrena. – Beste datu batzuk

Justifikatzeko azken eguna 2027ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2026ko otsailaren 27an. – Alkatea, Asier Irigorri Basaguren